

KUDEAKETARAKO ADIERAZLEEN SISTEMAK EKONOMIA SOZIALEKO ERAKUNDEETAN: IKASTOLEN KOOPERATIBA-ESPERIENTZIAREN KASUA

Tesiaren egilea: Unai del Burgo García

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI)

Tesi-zuzendaria: Aitor Bengoetxea Alkorta eta María Jesús Luengo Valderrey

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi hau UPV/EHUren Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuaren (GEZKI) eta Ikastolen Elkartearen arteko hitzarmen baten bitartez gauzaturako ikerketa bat da: Euskal Herriko ikastolen inguruko ikerketa enpirikoa, ikastolen mugimendurekin zuzenean lankidetzan, Ekonomia Sozialeko Erakundeen (ESE) kudeaketa-arazo zehatz bati erantzuna emateko asmoarekin.

Mota horretako erakundeen helburu ekonomiko-finantzarioak bermatzea ezinbestekoa da beren helburu sozialen lorpena ahalbideratzeko: helburu sozialak lortzeko bitartekoak dira helburu ekonomikoak. Helburu sozioekonomiko horiek lortzeko (bai ekonomikoak, bai sozialak), ESEek ohiko kudeaketa-prozesu enpresarialak garatu behar dituzte: planifikazioa, kudeaketaren kontrola eta erabakitze-prozesua. Prozesu horiek guztiek modu arrazionalen gauzatzeko informazio egokia izan behar dute eskura. Horretarako, beren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta soziala hobetzeko tresnak landu behar dituzte; zehazki, kudeaketarako informazio-sistemak (KIS), hau da, kontabilitatea.

Hala ere, mota honetako erakundeen helburuak multidimentsionalak izanik (ekonomiko eta sozialak), ESEen KISEk ere izaera multidimentsionala, holistikoa edo integrala izan behar dute (modu berean, ekonomikoa eta soziala, beraz): aldagai ekonomiko-finantzarioak eta sozialak kudeatu behar dituzte modu orekatuan. Fenomeno honi «Kudeaketa Orekatua» deitu diogu. Ohiko kontabilitate-sistema ekonomiko-finantzarioek zailtasun nabariak dituzte kudeaketa orekatu hori ahalbideratzeko.

Hau kontuan izanda, gure ustez kudeaketarako adierazleen sistemak (KAS) dira KIS formalizatuen artean ESEen kudeaketa-oreka hori bermatzeko tresnarik egokienak. Gauzatu dugun ikerketan, «Kudeaketa Orekatua» delako hori ahalbideratzeko KASen baliagarritasuna aztertu nahi izan dugu, mota horretako

erakundeen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta soziala hobetzeko informazio-tresnen ikerketan sakontzeko asmoarekin. Horretarako, Ikastolen kooperatiba-esperientziaren kasua aztertuko dugu, mugimendu horien kooperatibei KAS eredu zehatz bat proposatuz: Ikastolen Kudeaketa Orekatuaren Sistema.